


# Ezpalak

JON TORNER

## Euskal ilustratzaileak Bartzelonako Ficomic azokan



MAIATZAREN 6TIK 9RA bitartean egingo da Bartzelonako Ficomic Komikiaren Nazioarteko 28. Erakusketa. Aurtengo edizioan euskal ilustratzaileak gonbidatu dituzte antolatzaileek. Getxoko Komiki eta Manga Azokak egin ditu Eusko Jaurlaritzaren eta Ficomic-en arteko zubi lanak. Kultura Sailak 150 metro koadroko erakus-

mahaia jarriko du Bartzelonako azokan eta euskal artisten argitalpenak ezagutzera emateaz gain, mahai-inguru eta hitzaldiak jasoko ditu. *Euskomik* izeneko gunean Euskal Irudigileen Elkarte Profesionalak plazaratutako *Irudia* katalogoa aurkitu ahal izango da. 30 marrazkilariren lanak bildu dituzte liburu horretan. Interneten: [www.ficomic.com](http://www.ficomic.com).

## Ikastekoeskubidea.info sortu dute

EUSKAL PRESO POLITIKOEN ikasteko eskubidearen alde unibertsitatean orain arte burututako eta aurreantzean egingo diren ekimenei buruzko webgunea jarri dute martxan: [www.ikastekoeskubidea.info](http://www.ikastekoeskubidea.info). ELA, LAB, EILAS, Ikasle Abertzaleak eta Euskal Herriak Bere Eskola sindikatu eta taldeek bat egin dute preso politikoen ikasteko eskubidearen aldeko ekimenarekin. Albisteak, agenda, bideoak eta abar bilduko dituzte webgune berrian.

**Maite eta Mikel Gurrutxaga** neba-arrebek irabazi dute haurrentzako albumak sortzeko aurtengo Etxepare saria, *Alex nire munstro lagun on-ona* lanarekin. Liburua Pamielak argitaratuko du euskaraz, eta Factoria K de Libros argitaletxeak gaztelaniaz eta galizieraz.

**Peter Friedl** artista austriarrak hainbat obra bildu ditu Bilboko Rekalde aretoan. Ekarri dituen argazki, bideo muntaia eta filmen artean *Bilbao Song* izeneko pelikulak eman du zeresan handiena, besteak beste Julen Madariaga ETAre sortzaileak eta Pirritx eta Porrotx pailazoen parte hartu izana kritikatu dutelako batzuek. Euskal pintoreen zenbait margolanetatik abiatuta, Euskal Herriko historia eta kulturari buruzko bost minutuko bideoa osatu du Friedlek. Aktore profesionalz gain, egileak bere ustez Euskal Herriko pertsonaia esanguratsuak direnak aukeratu ditu. Ekainaren 6ra arte izango da ikusgai erakusketa.

● **Itziar Ituño aktoreak Aizu! aldizkarian:** «*Goenkale* eskola handia izan da niretzat, bai euskaragatik, baita interpretazioagatik ere, aukera asko daudelako nork bere burua ikusi eta akatsak zuzentzeko. Askok ikasi dut, baita gauzak arin egiten ere. Baina aukeran nahiago ditut zinema eta antzerkia. (...) Telebistan oso gustura nabil, badaramatzat sei bat urte, ia funtzionario ere bihurtu nau *Goenkalek*. Aktore batentzat oso garrantzitsua da holako lan batek ematen duen ziurtasuna. (...) Jendeak gurago du komedia bat drama bat baino. (...) Jendea, barre eginez gero, poz-pozik ateratzen da, nahiz eta zentzurik eta mezurik gabeko istorio bat ikusi».



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: [www.argia.com/harpidetza\\_haria.php](http://www.argia.com/harpidetza_haria.php)

